

Sagardoa da benetako jainko bakarra


■ Txorixo egosiak ez zuen denbora asko iraun plazan jarritako mahaietan. ■ Herritarrek oso ondo aprobe-txatu zuten ostiral gaua parranda egiteko. ■ Atzo herriko lau preso politikoak omendu zituzten.

Sagardo dastaketa erarik egokienean apaindutako plazan egin zuten; gero herri bazkarian berriro sagardoa eskatu zuten gehienek; eta arratsaldean, sagar biltzea egin zen. Gaur, bakailao, tortilla lehiaketa, sagardo-tegietan bezala. Sagardoa gustuko ez duena alferrik etorriko da jai hauetara.

X. ORIA

Obraz josita dagoen herria apar-kaleku bila zeharkatu ondoren, kotxea utzi eta plazara. Lontxo oso haserre zegoela eta, udale-txeko arkupetan egotea hobe. Sa-gardoa hartu, ahal bada txorixo egosia ere bai (a zer abiadan hus-tutzen ziren bandejak), eta idiak lanean nola ari ziren begiratu. Plan hori aukeratu zuten atzo eguerdian plazan bildutako ehun-daka herritar eta bisitariek. Arti-sauak lanean izkina batcan, Herri Kirol Batzordekoak kiosko gai-nean esplikazioak ematen, eta idiak lanean gora eta behera. Bat-zuek apustuak ere egin zituzten.

Idiak lanean ari ziren bitartean herriko lau presoak omendu zituzten: Juan Luis Agirre, Petra Elder, Argi Perurena eta Idoia Arrieta. Azken honek telefonoz deitu zuen Carabancheleko espe-txetik, nahiz eta bere ahotsa



Iturendarrak izerditan, kalez kale ibili ondoren, plazan atsedena hartu zutenean. Orduan idiak ari ziren lanean.

Andoni CAMELLADA

plazan entzuterik ez zen izan. Une horretan plazan zeuden bat-zuk, oso emozionatuta negarrez hasi ziren. Aipagarri da, bes-talde, herriko abesbatzako kide-batek abestu zuela presoek eskai-nitako aureskua. Bezperan Seni-deak elkartek antolatutako en-

kartelada egin zuten 100dik gora lagunek eta atzo eguerdian beste 50ren bat lagun bildu ziren Zi-potza ondoan egin zen herri baz-karian. Eguzkitan bazkaldu be-harra izan zuten. Hala ere, oso ondo agoantatu zuten gehienek, hiru gaupasazalek izan ezik,

hauen irudia triste samarra bai-tzen. Batek oinetakoa kendu eta telefonoa izango balitz bezala erabiltzen zuen, garrantzi han-diko mezuren bat izango zuen eta.

Aurreko gauean jende gehia-girik ez zen izan, baina giroa,

«mundiala». Horrela diote behin-tzat bertan ibilitakoek. Txosnetan Alaitz eta Maider eta Maixa eta Ixiarren abestiak entzup zitez-keen bitartean, Aquarium taldeak alaiutako dantzaldian oso beste-lako giroa zegoen. Hemen adi-neko jendea eta umeak nagusi.

CONCURSO

Tortilla de bacalao y los secretos de las sidrerías

A las 12'30 horas de hoy se va a celebrar el III Concurso de Tortilla de Bacalao. En contra de lo que se pudiera pensar, las sidrerías no suelen participar «quizá para no descubrir sus secretillos culinarios». Gure Izarra, organizadora del concurso, espera que participen unas ocho personas y muchas más en la posterior degustación, ya que, como dicen desde Gure Izarra, es mucho más fácil dar cuenta de lo cocinado que prepararlo.


ESTACION DE SERVICIO ASTIGARRAGA



Egunero 100 sari ematen dira
Le obsequia 100 Premios al Día

COMPRUEBELO

ASTIGARRAGA • TFNO./FAX: 52 92-11



CARPINTERIA
PROPIA

DTO. 10% AL CONTADO
O
24 MESES DE
FINANCIACION GRATUITA



MUEBLES
J. ARZADUN
HALTZARIAK



Pº. Donosti, 90
Pol. 26 • Apdo. 7
Tfno./Fax 55 73 05
ASTIGARRAGA